



ERAKUSKETA BALEAREN HEZURDURA

Kaxalotearen hezurdura Biterin, gaurtik

2011ko abuztuaren 26an Zarautzen azaldutako Kaxalotea Hernaniko lurretan lurperatu zuten, eta hezurdura atera dute dagoeneko. Biterin izango da ikusgai, gaur, 11:00etatik aurrera.

DUELA hiru urte eta erdi Zarauzko hondartzan agertutako kaxalotearen hezurdura ikusteko aukera izango da gaur, Biterin, 11:00etatik aurrera. Asmoa da hezurdura Donostiako Aquariumera eramatea, baina muntaketa lanak Biterin egin dituztenez, egun batzuetan bertan ikusgai jartzea erabaki dute.

Olatz Urrutibeaskoa, udal-tertxeko ingurumen teknikariak Kronikari azaldu dionez, oraingoz, ez dute zehaztu noiz arte izango den ikusgai. Donostiako Aquariumeko 2015eko izarra izango da kaxalotearen hezurdura, baina Vicente Zaragueta zuzendariak erabaki du hernaniarrei primizia ematea, «egun pare batez».

15 metro eta 20 tonelada inguruko balearen hezurra Hezurdura lurpetik atera eta Biterira eramatea ez da lan



Kaxalotea lurperatu zutenean bizilagun batek bidalitako argazkia.

erraza izan, Urrutibeaskoak azaldutakoaren arabera. Izan ere, kaxaloteak 15 metroko luzera zuen, eta 20 tona inguru.

Hala ere, uste baino lehen-zeago berreskuratu ahal izan da hezurdura, eta modu egokian lurperatu zuten, nahiko azkar egin dute muntaketa.

Orain arte diskrezio osoz jokatu dute, baina gaurkoan, hernaniar guztiak gonbidatu dituzte hezurdura ikustera, Donostiara eraman aurretik. ||

PELOTA EUSKAL FEDERAZIOA

Euskal Selekzioa eta Mexiko, aurrez aurre

Arratsaldeko 17:30etan hasiko dira partiduak, kiroldegiko frontoian. Bi jokatu dira: emakumezko paleta goma aurrea, eta binakako esku pelota, segidan. Hernaniarrek hartuko dute parte, bietan.

MEXIKOKO Selekzioa izan da aurreko Pelotako Mundu Txapelketako irabazlea, eta gaur, Hernanin izango da, Euskal Selekzioaren aurka jokatzeko.

Euskal Pilota Federazioak Hego Euskal Herrian antolatu dituen lau jaialdietan aurrenekoa izango da. Bizkaian,

Arabian eta Nafarroan izango dira hurrengoak, Euskal Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzeko.

Hernanin, gaur, 2 partidu jokatu dira, 17:30etan hasita.

Bi partidu Aurrea jokatu da emaku-

mezkoen paleta goma partidua. Amaia Irazustabarrena hernaniarrak jokatu du, Anoetako Maider Mendizabalekin, eta 30 metroko frontoiko modalitateko txapel-dunak izango dituzte aurrez aurre: Paulina Castillo eta Rosa Flores.

Bigarren partidua eskuz binakakoa izango da: Paul Ojuel eta Eneko Aizpitarte hernaniarrak ariko dira (azken hau D.V-Bankoa Torneoko azpitxapelduna), 36 metroko frontoiko munduko azpitxapeldunen aurka: David Alvarez eta Fernando Medina. ||

TXOTX IREKIERA

Bazkaritarako txartelak, bihar

Urtarrilaren 11n irekiko da Txotx denboraldia Hernanin. Aurten, Itxas-Buru sagardotegi-egingo da bazkaria, eta txartelak erosi ahal izango dira Biterin, 20 eurotan, bihar eta etzi eta urtarrilaren 7tik 9ra, 08:00etatik 15:00etara. ||

ESKUBALOIA

Ate irekiak, gaur

10:00etatik 11:30etara ate irekien jardunaldia egingo du gaur eskubaloi taldeak kiroldegian. Gero, 12:30etan, infantilen partidua jokatu da. Bestalde, bihar eta etzi alebilen teknifikazio saioak egingo dira 09:30etatik 11:30etara. ||

SAN SILBESTRE

Izen ematea, zabalik

Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa egingo da asteazkenean, eta izen ematea zabalik dago www.kirolprobak.com webgunean, Pelotadendan eta Ibai Mendin. 17:30etan 8 urte artekoen txanda izango da; 17:35etan, 9-13 urte bitartekoena; eta 17:45etan 14 urte-tik gorako guztiena. Mozorro onenak ere saria izango du. ||

SAHARA

Janari bilteta, beste bi astez

Urtarrilaren 10 arte jasoko dituzte Saharara bidaltzeko jakiak, Biterin: arroza, lentejak, pasta, olioa, azukrea, eta atuna edo sardinak oliotan, eta konpresak. ||

URTEZAHAR ERRONDA

Zita, etzidamu

Urte Zahar errondan ateratzeko deia luzatu du Ohitura Zahar-rrak abesbatzak. 17:15etan jarri dute zita, arkupeetan. ||

EDIPOTOA

Emanaldia Egian

Donostiako Bukowski tabernan emanaldia eskainiko du gaur 20:00etan Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak, *Etipotoa* lanean oinarrituta. ||

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

Aitor
RUIZ DE EGUIO

OPARI ARTISTIKOAK
KALITURAK: ALUMINIO, BORDO, BERRAZ...
KANTARRO: PAPERLAN, ALUMINIO, BERRAZKOTAK...

www.aitor-ruiz-de-eguiio.com
info@aitor-ruiz-de-eguiio.com
605 76 02 45

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

Errege bezpera egun osoa
eta
Errege eguna eguerdia
IREKITA

www.erioguardaenea.com
Iturriaga kalca, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Odriozola URNIETA Idiazabal, 18 943 334014 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA GAUR Goizean euri dezente egingo du, eta arratsaldean alertzerak joko du. Iparraldeko haizeak joko du, bolada gogorrek, eta dezente hoztuko du. Min.5°/Max.9°

BIHAR Hotz handia egingo du. Izotza botako du, baita kostaldean ere. Zerua garbi egingo da, eta ipar-ekialdeko haizea ibiliko da. Min.1°/Max.6° (euskalmet)

ESKUALDEKO PRESO GAIXO LARRIEN SUSTENGU PLATAFORMA



Buruntzaldeko preso senide eta lagunak elkartu ziren atzo Hernanin, gaixo daudenen eskubideen alde.

«500 preso politikoaren artean asko salbuespen egoera larrian daude»

Ibon Fernandez, Gari Arruarte eta gainontzeko preso gaixoen alde egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia egin zuten atzo, Hernanin.

PRESO gaixo larrien egoera salatzen prentsaurrekoa eman zuen atzo Hernanin, Buruntzaldea mailako preso gaixo larrien sustengu plataformak.

Azaldu zuten: «500 preso politikoaren artean asko salbuespen egoera larrian daude: sakabanaketa, bizi arteko espetxe zigorrak, isolamenduak... Eta ezin ahaztu gaixotasun larriak dituzten 10 euskal preso politikoak». Horien artean daude Gari Arruarte

eta Ibon Fernandez Iradi hernaniarrak.

Konpromisoa egoerarekin bukatzeko

Horrekin guztiarekin bukatzeko herriz herri martxan jarri diren eta jarriko diren ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa eskatu zuten: «gatazkaren konponbiderantz, Euskal Herriaren elkarbizitza demokratikorantz, inoiz baino beharrezkoago dugu espetxe

politika honen zutabe diren salbuespen neurriak etetea eta gaixo dauden presoak etxera ekartzea».

Konpromiso horietako bat gaur hartuko dute: Martuteneko espetxera martxa egingo da 11:30etan Zinkoeneatik abiatuta. Urtarrilaren 10ean, berriz, Bilbon Manifestazio Nazionala egingo da.

Hernaniko Ernaik, bestalde, 11 konpromiso askatasunerantz ekimena antolatu du. ||

GURE ESKU DAGO

Ametsen Kriseiluen argazki txapelketa

Abenduaren 31n Ametsen Kriseiluen zerura botatzeko deia egin du Gure Esku Dagok. 18:30etan egingo da, Zinkoeneatik eta Ereñotutik. Horrekin lotuta, argazki lehiaketa antolatu dute. Argazki eta mezu politena bidaltzen dituenak bi lagunentzako otordua irabaziko du Fagollagan. Argazkiak bidaltzeko: hernanigureeskudago@gmail.com/610 044 001. ||



Alberto Elosegi, Amaia Fernandez eta Xabier Arnaiz izango dira epaimahaian.



HERNANI BHI

Sukaldaritza, ikasgai berria

Aukerako ikasgaia izan dute sukaldaritza, Hernani BHI Institutuko 28 ikaslek. Lau hilabeteetan jaso dituzte klase teoriko eta praktikoak. Helburua izan da bina aurreneko plater, bigarren plater eta postrearen errezeptak egin eta jakiak prestatzea. Pintxo klasiko eta berritzaile lehiaketa ere egin dute. Emaitzarekin oso pozik daude. ||

Literatur txokoa



Hernaniko Udal Liburutegia

UDAL LIBURUTEGIKO IRAKURLE BATEK GOMENDATZEN DIZU



BALEAK IKUSI DITUT

Javier de Isusi

Euskal Herriko historiaren azken lau hamarkada zurrunbilotsuen ikuspegi zabala Proventzako kartzela batean eza gutuko dute elkar Josuk eta

Emmanuelek; bata etakide ohia da, bestea berriz, GALEko kide ohia. Handik ia mila kilometrora bizi da Anton, Josuren txikitako laguna; ETak aita hil zion hogeita bost urte lehenago, eta heriotza horren itzalean bizi da oraindik ere.

Javier de Isusik -Los viajes de Juan Sin Tierra komiki sailaren egileak-, gertakizun erreal batean oinarria duen nobela grafiko zirraragarria proposatzen digu oraingoan; elkarren kontrako bideak ibiltzea suertatu zaien hiru pertsona dira protagonistak, eta, hala ere, elkarrekin topo egin nahi dute, pertsona moduan topo egin.

Liburua gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: dobera@dobera.com edo liburutegi@hernani.net. Edo paperean eraman Doberara edo Udal Liburutegira.

AMHER ETORKINEN BOTO ESKUBIDEA

Bozkatu ahal izateko eskaera, lehenbailehen

Asteartea baino lehen aurkeztu behar da botoa emateko deklarazioa. Argibide gehiago: 901 101 900, udaletxean, edo Hautesle Errolda Bulegoan.

AMHER eta Sos Arrazakeriak jakinarazi dute etorkinek berehalako behar dutela eskaera 2015eko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan botoa eman ahal izateko.

Botoa eman ahal izango dute Europar Batasuneko 28 estatu kideetako herritarrek; Europar Erkidegotik kanpoko pertsonak, espainiar nazionalitate badute; eta Europar Erkidegotik kanpoko herritarrek, ondorengo herrialdeetakoak badira: Bolivia, Cabo Verde, Txile, Kolonbia, Korea, Ecuador, Islandia, Norvegia, Zelanda Berria, Paraguay, Peru eta Trinidad eta Tobago.

Horretarako, ordea, baldintza batzuk bete behar dira.

Asteartea baino lehen, deklarazioa

Europar Erkidegoko herritarrek asteartea baino lehen aurkeztu behar dute udaletxean sufragio eskubidea erabiltzeko deklarazio formala.

Europar Erkidegotik kanpoko herritarrek berriz, behar dituzte: Espainiako Estatuan bizitzeko baimena; hauteskunde erroldan izena emanda egotea (Norvegiaren kasuan 3 urte nahikoak dira); eta Espainiako Estatuan bizi diren atzerritarren hauteskunde erroldan izena emanda egotea. Urtarrilaren 15a arte eman daiteke izena bertan, udaletxean. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)